



Arantzako Udala

UDAL INFORMAZIOA 2020KO EKAINA

HERRIKO BESTARIK EZ

Dagoeneko zuetako aunitzek jakinen duzuen bezala, koronabirusa tarteko sortu den osasun larrialdiaren ondorioz, eta Nafarroako Gobernuak herrietako bestak ez ospatzeko egindako gomendioei segituz, abuztuaren 14tik 17ra ospatzekoak ziren Arantzako bestak alde batera uztea erabaki du udalak. Argi dugu herritarren segurtasunak duela lehentasuna eta hori izan da bestak ez egiteko erabakia hartzearen arrazoia. Aitzinerago, egoerak horretarako aukera ematen duenean, besta herrikoiak antolatuko ditugu.



AUZOLANA

Lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen borondate osoarekin auzolanean aritu eta ariko zareten herritar guztiei. Lana edozein dela ere, egindakoa bistakoa da bai herrigunean baita baserri auzoetan ere, eta horrela segitzea nahi genuke, gutako bakoitzak pixka bat eginez aunitz lortzen baita.

Bere garaian erran bezala, bazterrak txukun mantentzetik haratago, hagitz garrantzitsua eta beharrezkoa iruditzen zaigu auzolana, eta bide horri eusten diogu. Horregatik, auzolana herrian bizi garenok egin behar dugula oroitarazi nahi dizuegu.

18 eta 55 urte bitartean dituzten herritar guztiek egin behar dute auzolana, ezindu fisiko, psikiko eta zentzumenezkoek izan ezik, ezta preso daudenek ere. Herritar bakoitzari urtean 10 orduko saioa dagokio.



Auzolana egitean auzoko arduradunari erratea ere ezinbertzekoa da: Aientsan Imanol Lukanbio eta Fernando Lukanbio dira ordezkariak; Azkilarrean Mikel Altzuri eta Antonio Bergara; Bordalarrean Teodoro Pikabea eta Igor Ugalde, Eguzkialdean Dabid Iturria eta Markel Jorajuria eta herrian Gotzon Arenas eta Jabier Mari Etxebeste.



PELLE TTIKI

Herritarren auzolanari esker, 2007ko ilbeltzean ireki zituen ateak Pelle Ttiki haur eskolak. Geroztik, urtero-urtero 1 eta 3 urte bitarteko herriko ume saila pasatu dira bertatik, batzuetan gehixeago, berteetan guttixeago.

Udalarentzat hagitz garrantzitsua izan da beti zerbitzu hori bermatzea eta esfortzu ekonomiko handia izan den arren, urtero ahalegin hori bere gain hartu izan du.

Heldu den ikasturteari begira, ordea, ume bakarrak eman du izena eta horrek nahi ez genuen erabakia hartzera behartu gaitu. Erabakiak tristura handia sortzen digu, baina heldu den ikasturtean Pelle Ttikik ez ditu ateak irekiko.

Etorkizunera begira, ume gehiagok izena eman ez gero, berriz ere zerbitzua martxan paratzeko



aukera ez du baztertua udalak, baina momentuz, herriak 20.000 euroko inbertsioa egin behar duela kontuan hartuz, eta ume bakarrarekin inondik inora bideragarria ez delako, ez irekitzea erabaki du udalak.

GOIKO KARRIKAKO TRAFIKOA



Aitzineko urteetako bideari segituz, aurtengo udako hilabeteetan ere, asteburuetan Goiko Karrikako trafikoa desbideratzea erabaki du udalak. Gisa honetara, karrika horretako trafikoa arindu nahi da, oinezkoei erraztasunak emanaz eta ostatu iskinean lasaitasuna bermatuz, horrek ere bizia ematen baitio herriari. Hortaz, asteburuetan, Aientsa, Azkilarrea, Larreta edo Osiñatik heldu diren ibilgailuek Goienburun barna joan beharko dute. Herrira sartzen diren ibilgailuentzat Goiko Karrika irekia izanen da, baina ahal den neurrian, plazatik joateko eskatu nahi dizuegu.

HERRIKO ETXEA ZABALIK

Konfinamendua indarrean ezarri zenetik, ezohiko egoeran segitu du herriko etxeko martxak. Baina joan den ekainaren 15az geroztik, jendeari arreta eskaintzen hasiak dira. Hala ere, oraindik normaltasunera bueltatu gabeak garenez, aitzinetik hitzordua hartuta joan beharko da herriko etxera eta behar-beharrezko tramiteak egiteko baino ez. Herriko etxeko ateak 10:00etatik 13:00etara egonen dira zabalik eta maskararekin joatea ezinbertzekoa izanen da.

Bide batez, irisgarritasunari bide eginez, udaletxean igogailu mekanikoa martxan dela ere jakinarazi nahi dizuegu.

BI LANGILE KONTRATATUAK

Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzari esker, bi langile kontratatu ditu udalak sei hilabeterako. Alde batetik, herriko hainbat lanetan aritzeko Xabier Taberna Larretxea herritarra kontratatu du eta bertetik, herriko eraikinak garbitzeko Estibalitz Urtxegi Telletxea bertararra.



TRASTE HANDIAK

Lehen ere ikusi ditugu halako irudiak, koltxoiak, aulkiak, armairuak edo bertzelako traste azkarki edukiontzien ondoan botatuak. Horrela, ordea, ez goaz inora eta berriz ere oroitarazi nahi dugu Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak etxez etxe biltzen dituela neurri handiko trasteak. Doakoa da zerbitzua eta telefono honetara deitu baino ez da egin behar:

672 04 57 34

Ez dute zentzurik Anguleroetan edo bertze zenbait tokitan ikus daitezkeen irudi hauek, are guttiago dohainik den zerbitzu bat eskura izanda. Hortaz, hori kontuan hartzeko eskatu nahi dizuegu. Hartara, gure bazterrak garbi mantenduko ditugu, eta hori denok eskertuko dugun zerbait izanen da.



MEDIKUAREN ETXEA

Hainbat astez berritze-lanetan aritu ondotik, joan den ilbeltzaren 20an ireki zituzten medikuaren etxeko atek. Geroztik ohiko funtzionamenduan aritu dira medikua eta erizaina lanean.

Gisa berean, herritar guztiek ahalik eta informazio gehien izatea garrantzitsua iruditzen zaigunez, medikuaren etxeko obren inguruko datuen berri eman nahi dizuegu.

GASTUA	36.178,11 €
NAFARROAKO GOBERNUAREN DIRULAGUNTZA	24.099,72 €
UDALAK ORDAINDUTAKOA	12.078,39 €

